

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3330

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 2koa, Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkari nagusiarena, Europako eskualde estrategikoetan (Bavaria, Korsika, Flandria, Gales, Euskal Hirigune Elkargoa eta Akitania Berriko Eskualde Berria) lankidetzaren teknikoan aritzeko proiektuetarako laguntzen deialdia egiteko, 2025erako.

Martxoaren 26ko 47/2019 Dekretuan arautzen da kanpoan Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekin lankidetzaren teknikoan aritzeko proiektuetarako laguntzak ematea (EHAA, 63. zenbakia, 2019ko apirilaren 1ekoa).

Arestian aipatutako dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da kanpoko eskualde estrategiko batekin edo gehiagorekin lankidetzaren proiektuetarako laguntzen – Lehendakaritzaren 2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotakoan– deialdia egitea 2025erako.

Dirulaguntza hau jasota dago Lehendakaritzaren 2025eko ekitaldirako Dirulaguntzen Urteko Planean (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/proiektua/lehendakaritzaren-2025eko-dirulaguntzen-plan-estrategikoa/>) –Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusiaren 2025eko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren bidez onartutakoan–, bai eta 2024-2027 aldirako Lehendakaritzaren Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoan (<https://www.euskadi.eus/proiektua/lehendakaritzaren-2024ko-dirulaguntzen-plan-estrategikoa/web01-s2lehen/eu/>) – Koordinaziorako eta Gizarte Komunikaziorako idazkari nagusiaren otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez onartutakoan– ere; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa argitaratu ziren bi plan horiek. Dirulaguntza horiek lagungarriak dira euskal interesak sustatzeko, hori izanik aipatutako planetan jasotako helburu estrategikoetako bat.

Bavaria, Korsika, Flandria, Gales, Euskal Hirigune Elkargoa eta Akitaniako Eskualde Berria eskualde estrategikoak dira Europan, eta eskualde horiekin sinatu du EAEk, Dekretuan jasota dagoen bezala, Elkar Ulertzeko Memorandum edo Asmoen Adierazpen bat. Deialdi hau bi komunitateen aldeko proiektuak eta ekintzak koordinatzeko eta gauzatzeko lankidetzaren zehaztapena da, aipatutako memorandumetan eta asmoen adierazpenetan jasota egonik.

Horri jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Bavaria, Korsika, Flandria, Gales, Euskal Hirigune Elkargoa eta Akitaniako Eskualde Berria Europako eskualde estrategikoetako pertsona juridikoekin gauzatzeko alde biko jarduketan eta lankidetzaren proiektuak finantzatzeko 2025erako laguntzen deialdia egitea eta deialdion oinarri arautzaileak onestea, ebazpen honen eranskinean aurreikusitakoari jarraikiz.

Martxoaren 26ko 47/2019 Dekretuak –Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetzaren teknikoan aritzeko proiektuei laguntzak nola eman arautzen duenak (2019ko apirilaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 63. zk.)– eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak xedatutakoaren arabera arautuko da deialdi hau.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Ebazpen honetan jasotako laguntzek edo dirulaguntzek hau bete beharko dute: Batzordearen 2023/2831 Erregelamendua (EB), 2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (2023-12-15eko EBAO, L saila). Laguntza horiek minimis gisa kalifikatzen dira; izan ere, pertsona juridiko edo fisiko jakin bati emandako laguntza osoa ez da 300.000 eurotik gorakoa izango hiru urteko ezein alditan. Pentsatu ohi da muga horretatik beherako laguntzek ez dutela eraginik merkataritzan eta ez dutela faltsutzen lehia; honenbestez, ez dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikulua aplikazio-eremuaren barruan sartzen.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko organo berari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Guztiek jakin dezaten, www.euskadi.eus webgunean ere argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 2a.

Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkari nagusia,
ANDER CABALLERO BARTUREN.

ERANSKINA

Ebazpena, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko idazkari nagusiarena, Europako eskualde estrategikoetan (Bavaria, Korsika, Flandria, Gales, Euskal Hirigune Elkargoa eta Akitania Berriko Eskualde Berria) lankidetzaren teknikoan aritzeko proiektuetarako laguntzen deialdia egiteko, 2025erako

OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Ebazpen honen helburua da eskualde estrategikoko (Bavaria, Korsika, Flandria, Gales, Euskal Hirigune Elkargoa eta Akitania Berriko Eskualde Berria) pertsona juridikoekin 2025erako egiteko alde biko jarduketara eta lankidetzaren proiektuak finantzatzeko laguntzen deialdia egitea, honako arlo hauetan jasotako gaietan betiere:

a) Euskadik eta Bavariak 2021eko ekainaren 23an sinatutako Elkar Ulertzeko Memoranduma:

– Digitalizazioa, adimen artifiziala, 4.0 industria.

– Teknologia jasagarriak, garbiak eta ingurumena zaintzen dutenak.

– Ingurumen-babesa (klima-egokitzapenaren eta ekonomia zirkularraren ikuspegitik).

– Barne-segurtasuna eta polizia (delinkuentziaren eta prebentzioaren aurkako borrokan eta polizien prestakuntzan eta hobekuntzan oinarrituta).

– Kultura-lankidetzaren.

b) Euskadik eta Korsikak 2021eko apirilaren 13an sinatutako Elkar Ulertzeko Memoranduma:

– Euskararen eta korsikeraren hizkuntza-normalizaziorako politikak.

– Atzerrian bizi den diasporarekiko edo gizataldeekiko harreman- eta lotura-politikak.

– Lankidetzaren garatzea Europako gaien esparruan.

– Interes komuneko esparruetako beste lankidetzaren batzuk, hala nola kultura, turismoa, politika ekonomikoa edo ingurumena.

c) Euskadik eta Flandriak 2021eko azaroaren 15ean sinatutako Elkar Ulertzeko Memoranduma:

– Ikerketa, garapena eta berrikuntza (industria eta teknologia, osasuna, gizarte-politikak, genero-berdintasuna, sektore publikoaren kudeaketa, azpiegiturak eta garraioa).

– Lan-merkatua eta politika ekonomikoa (lanbide-heziketa, produktibitate- eta lehiakortasun-politikak).

– Ingurumena (klima-aldaketa, uren, materialen eta hondakinen tratamendua, bai eta ingurumenarekin eta energia berriztagarriekin bateragarriak diren teknologiak ere).

– Osasuna (batez ere, zainketa kronikoak).

– Kultura- eta sormena-sektorea.

– Kultura anitzeko gizarte tolerantzia bat bultzatzea (bakea eratzea eta giza eskubideak errespetatzea).

– Eskualdeek Europar duten zereginaren indartuko duten ekimenak eta aliantzak.

d) Euskadik eta Galesek 2018ko uztailaren 12an sinatutako Elkar Ulertzeko Memoranduma (2021eko uztailaren 12an sinatutako akordioaz luzatua):

- Mugikortasuna eta garraioak (batez ere, trenbide-azpiegitura eta -zerbitzuak).
- Ingurumena eta klima-aldaketa.
- Teknologia, berrikuntza eta lehiakortasuna.
- Itsas energiak.
- Nekazaritzako elikagaien industria.
- Hezkuntza eta prestakuntza.
- Zerga-estrategia eta -politika, zerga-administrazioarako politika, aurrekontu-kudeaketa eta gizarte-zerbitzuak.
- Osasuna eta gizarte-laguntzarako zerbitzuak, balioetan funtsatutako arreta medikoa eta zahartze aktibo eta osasungarria.
- Negozio-aukerak.
- Kultura anitzeko gizarte tolerantzia bultzatzea (batez ere, hizkuntza-politikaren eta kultura-sektorearen sustapenaren arloan).

e) EAEren eta Euskal Hirigune Elkargoaren artean 2019ko urriaren 7an sinatutako lankidetzaren instituzionalerako memoranduma:

- Mugaz gaindiko mugikortasuna.
- Goi-mailako irakaskuntza, prestakuntza eta ikerkuntza.
- Garapen ekonomikoa eta turismoa.
- Nekazaritza.
- Lurralde-garapen jasangarria.
- Ingurumena eta biodibertsitatea.
- Kultura eta euskara.

f) Euskadiren eta Akitaniaren arteko Lurralde Lankidetzarako Europako Taldearen hitzarmena, 2011ko uztailaren 11n sinatua:

- Eskualde bien arteko komunikazioak hobetzea, bereziki irisgarritasuna erraztuz eta, pertsonak eta salgaiak eramateko, ingurumena errespetatzen duten garraiobideak sustatuz.
- Ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak osagarri bihurtzea eta baloratzea, lurralde osoan teknologia-, ekonomia-, eta gizarte-dinamika berri bat sortu dadin –gobernantza on batez lagundua–.
- Lurraldearen garapen jasangarria sustatzeko proiektuak abian jartzea, bereziki, energia berriztagarrien eta baso-balorizazioaren arloetan.
- Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan, herritarren erabateko garapena bermatzeko metodoak eta bitartekoak partekatzea;

– Nekazaritza, elikadurari eta osasunari lotutako gaiak elkarrekin tratatzea eta, ildo horretatik, kalitatearen, jatorriaren eta trazabilitatearen inguruko ekintzak bultzatzea eta lurraldeei balioa emango dieten nekazaritza-praktika jasangarriak garatzea.

– Kultura- eta arte-dinamika sendotzea eta, bereziki, euskara eta euskal kultura sustatzea, sormen horren adierazpenetan txertatutako alderdi berri baten bitartez;

– Elkarren laguntzaz, turismo-baliabideak batera baloratzea, betiere, geografia- eta kultura-identitateak errespetatuko dituen garapen kontrolatuaren esparruan.

– Lurralde-lankidetzak, nagusiki berrikuntzaren, ezagutzaren ekonomiaren, ingurumenaren eta arriskuei aurre hartzearen arloan oinarrituta,

– Praktika onenak identifikatzeari, eskualdatzeari eta hedatzeari buruzko esperientzien trukeak –hiri-garapen jasangarriarekin lotutakoak barne–.

– Europar Batasunean garapenerako ardatzei buruzko azterlanekin, datu-bilketarekin, behaketarekin eta analisiarekin lotutako ekintzak.

Bigarrena.– Zuzkidura ekonomikoa.

Bavaria, Korsika, Flandria, Gales, Euskal Hirigune Elkargoa eta Akitaniako Eskualde Berria Europako eskualde estrategikoei lankidetzak teknikorako proiektuetarako laguntzen guztizko kreditua 50.000 eurokoa izango da 2025erako, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura.

Hirugarrena.– Dirulaguntzen mugak eta zenbatekoak.

a) Eskatzaile bakoitzak proiektu bakar bat garatzeko laguntza jaso dezake, baina nahi beste eskabide aurkez ditzake.

b) Proiektu bakoitzeko, gehienez ere 5.000 euro emango dira guztira.

c) Laguntzak ematea arautzen duen martxoaren 26ko 47/2019 Dekretuaren 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza horien gehieneko zenbatekoa erakunde eskatzailearentzako proiektuaren kostuaren % 50 izango da, eta ordainketa honela egingo da:

– Lehenengo ordainketa (% 40) dirulaguntzaren onespina sinatu ondoren egingo da.

– Bigarrenengo ordainketa (% 60) proiektua amaitu eta gastu guztiak justifikatu ondoren egingo da 2025eko azaroaren 30a baino lehen.

Laugarrena.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Honako kontzeptu hauek jaso dezakete dirulaguntza:

a) Diruz lagundu daitezkeen proiektuen arabera, Bavaria, Korsika, Flandria, Gales, Euskal Hirigune Elkargoa eta Akitaniako Eskualde Berria Europako eskualde estrategikotara joaten diren EAEko pertsonen bidaia- eta egonaldi-gastuak:

– Proiektu bakoitzeko garraio-gastuak: hegazkin-txartelen benetako kostua (beste edozein garraio bide ere balio du), 1.000 euro gehienez.

– Ostatu- eta janari-gastuak proiektu bakoitzeko: 180 euro eguneko, gehienez ere 7 eguneko.

b) Aldebiko proiektuak gauzatu, sustatu eta zabaltzeko gastuak, proiektu bakoitzeko jaso daitezkeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa (5.000 euro) osatu arte, deialdi honen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena.– Entitate partaideek bete beharreko baldintzak.

Laguntzak arautzen dituen Dekretuaren 5. artikuluan aipatutakoaz gain, parte hartzen duten entitateek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan onuradun-kondizioa lortzea eragozten duten inguruabarretako batean ere ez egotea.

b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan deskribatutako inguruabarretako batean ere ez egotea.

Seigarrena.– Eskabidea.

Honako obligazio hauek erantzukizunezko adierazpenaren bidez egiaztatuko dira:

a) Azaltzeko badaukan eskatuta edo jasota dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo bestelako baliabiderik helburu bererako, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuetatik.

b) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan araututako onuradun-kondizioa izatea eragozten duten deskribatutako inguruabarretako batean ere ez egotea, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan deskribatutako inguruabarretako batean ere.

c) Minimis araubidearen mendeko bestelako dirulaguntzak aitortzea, dagokien zerga-ekitaldian eta aurreko bietan jasotakoak, frogatzeko «minimis» laguntza berriak ez duela gainditzen 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2832 (EB) Erregelamenduak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei emandako «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzkoak, agindutako muga maximoa.

Zazpigarrena.– Eskabideak aurkezteko modua eta tokia.

a) Martxoaren 26ko 47/2019 Dekretuan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonen telematikoki egingo dituzte eskabideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez (<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1089609>), eta eskuragarri egongo dira kanal elektronikoan nola izapidetu jakiteko zehaztapenak, ereduak eta formularioak.

b) Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak, jakinarazpenak barne hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

c) Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zortzigarrena.– Ebaluazio batzordea.

Martxoaren 26ko 47/2019 Dekretuaren 11.2 artikuluan aipatutako ebaluazio-batzordea – dirulaguntza-eskabideak analizatu eta ebaluatuko dituena–, honako hauek osatuta egongo da:

– Batzordeburua: Asier Areitio Ibarlucea, Kanpo Harremanen eta Organismo Multilateralen zuzendaria.

– Batzordekidea: Elena Iturrate Vizcargüenaga, Europako Gaietarako Zuzendaritzako goi-mailako teknikaria.

– Idazkaria: Elena Iturrate Vizcargüenaga, Europako Gaietarako Zuzendaritzako goi-mailako teknikaria.

Bederatzigarrena.– Proiektuak gauzatzeko epea.

Proiektua laguntza-deialdia egin deneko urte naturalaren barruan –2025ean– hasiko da, eta urte bereko azaroaren 30a baino lehen exekutatu da.

Hamargarrena.– Suntsiaraztea.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikuluan eta Lehendakartzaren Egitura Organikoa eta Funtzionala Ezartzen duen azaroaren 26ko 388/2024 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalerako Idazkaritza Nagusiaren titularrari dagokio eskatutako laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena ematea eta, hala badagokio, esleitutako laguntzen zenbatekoa zehaztea.

2.– Ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du. Haren aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio organo berari.

3.– Ebazpena gehienez ere 6 hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko zaie interesdunei, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hamaikagarrena. Dirulaguntza jasotzen duten entitateen betebeharrak.

1.– Entitate onuradunek, dirulaguntza onartzearekin batera, dekretu honetan ezarritako arau guztiak ere onartu behar dituzte, baita zehapenen erregimenarekin lotuta dauden bermeak ere, hau da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoak.

2.– Laguntzak arautzen dituen Dekretuaren 17.3 artikuluan jasotako obligazio orokorrez gain, erakunde onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluen ondoriozko obligazioak bete beharko dituzte, bai eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren ondoriozkoak ere.

Hamabigarrena.– Ez-betetzeak.

Dirulaguntza ematea eragin zuten kondizioak betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutza-interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, egokitzat jotako gainerako ekintzak gauzatzeaz gainera, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean araututakoari jarraikiz.